

KILOMETROAK 2009 >

parrandero, *domingero*, bikote, familia, soltero, gipuzkoar, nafar, bizkaitar... Jende ugari euskaraz mintzo bazen ere, gaztelania erruz entzuten zen. Frantsesa ere bai noizean behin.

Bozgorailuek Bide Ertzean taldearen abesti bat jartzen zuten bitartean, kontu-kontari zihoan Agurtzane Miranda, Maite Lasa, Carlos Luengo eta Maite Torresek osaturiko lagun taldea. "Grosekoak gara!" esan zuen Agurtzane. Ikastolako gurasoak izaki, arratsaldean antolakuntza lanetan jardutea suertatu zitzairen. Goiza aprobetxatu behar, beraz. "Merezi du festaz gozatu eta, bide batez, proiektu berri honi laguntza ematea", aldarrikatu zuten. Kilometroetan bildutako dirulaguntza hori zentro berri bat eraikitzen bideratuko du Zurriola ikastolak. Izan ere, Barandiaran Lizeoarenekin bat egin ondoren, hezkuntza eskaintza osoa Gros auzora pasatu nahi dute ikastetxe arduradunek.

Goiza aurrera joan ahala, txosna, jantoki eta edaritegiak jendez gainezka zeuden eguerdi parterako. Gune horietako batean elkartu ziren Nahikari, Goizargi, Ekhiñe eta Edurne altsasuarrak, gogoko kontzertua noiz hasiko. "Betagarri, Kauta eta Asgarth taldeak entzun nahi ditugu", erabaki zuten, ikastolako gunean egitarauari begira.

Handik ez oso urrun, Manteoko gunean, *graffiti* tailerra eskaini zien haur batzuei Unai Fernandez donostiarrak. "Ondo dago kultura urbanoak ere bere txokoa izatea Kilometroetan", azpimarratu zuen. Eusko labeldun produktuak eskaintzen zituzten txosnak jendez gainezka zeuden graffitiaren zona berean.

INGURUMENA ZAINTZEN
Garraio publikoa

Jendetza handiena, baina, Sagueseko zabalgunean bildu zen. Zenbait gaztetxo kuadrilek edanari eman zioten eta kale-zurrutean elkartu ziren, *Ondo pasa, baina pasatu gabe* zioten karteletan jaramonik egin gabe. Beroaren eraginez, gainera, lipotimiaren bat edo beste artatu behar izan zuten ibilbidean banatutako sorosleek.

Ingurumenarekiko errespetua ere nabaritu zen Kilometroetan. Batetik, edalontzi berrerrabilgarriak banatu zituen antolakuntzak; bestetik, garbitzaileak paratu zituzten ibilbide osoan zehar. Lan horrek guztiak ibilbidea nahiko txukun mantendu zuen.

Antolatzaileek nabarmendu zuten, gainera, euskaltzaleek garraio



Neskato talde bat, ibilbideko sei guneetako batean.

ESALDIAK

"Merezi du festaz gozatu eta, bide batez, proiektu berri honi laguntza ematea"

AGURTZANE MIRANDA
Ikastolako gurasoa

"Orain 42 urte utopia handiengan ere ez zitzaigun okurrituko hona iritsiko ginenik"

KONTXITA BEITIA
Andereñoa eta Zurriolaren sortzaileetako bat

publikoa erabili zuten "nagusiki" Donostiara iristeko. Garbera merkataritza guneko autoen parkinga ez zen bete eta, are gehiago, 27 Poligonoa ez zuten erabili behar izan. Renfe eta EuskoTreneko trenak, berriz, gainezka ibili ziren egun osoan zehar: Oinez eta autobusez Donostia inguruko jende andana gerturatu zen Groseko kaleetara.

Ibiltarien artean zebilen, pozez gainezka, Kontxita Beitia irakasle jubilatua, Zurriolaren sortzailea eta lehen andereñoa: "Egun zoragarria da. Orain 42 urte ikastola sortu genuenean, utopia handiengan ere ez zitzaigun hona iritsiko ginenik okurrituko".



Gertrudis musika taldea Sagueseko emanaldian.



Xabier Rodriguez oriotarrak ez zion Kilometroaren hitzorduari hutsik egin, urtero bezala, Iker eta Ane seme-alabekin.



Ezkerretik eskuinera, Mertxe San Nicolas, Bakarne Etxeberria eta Joxe Ramon Iturain, haurrak inguruan dituztela.



Altsasutik etorri ziren, ezkerretik eskuinera, Nahikari Gonzalez, Goizargi Bengoetxea, Ekhiñe Olmos eta Edurne Gonzalez.



Arratsaldean lana suertatu zitzaenez, goiza aprobetxatu zuten Maite Torres, Carlos Luengo, Maite Lasa eta Agurtzane Mirandak.